

NUKFko EKONOMIA ARLORAKO LANGILE BAT KONTRATATZEKO OINARRIAK

LEHENBIZIKOA. Oinarri hauen xedea da NUKFko ekonomia arlorako langileak hautatzea, Ekonomiako edo Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako lizentziadun/gradudun pertsona bat, edo lizentzia eta gradu horiek barne hartzen dituzten gradu bikoitzetako lizentziadun/gradudun pertsona bat lan araubidean, kontratu mugagabearekin eta lanaldi osoarekin kontratatzeke.

BIGARRENA. Hasiera batean, kontratazioa errelebo-kontratu baten bidez egingo da, orain arte NUKFko ekonomia arloan aritzen zen pertsona ordezkatzeko.

HIRUGARRENA. Hautatutako pertsonak, nagusiki, honako zeregin hauek izango ditu:

1. NUKFren jardunaren eta barne funtzionamenduaren kudeaketa ekonomikoa gauzatzea (aurrekontuak egitea eta kontrolatzea, kontabilitatea eta diruzaintza kontrolatzea, fiskalitatea eta kudeaketa kontrolatzea).
2. Toki entitateei ekonomia, aurrekontu eta kontabilitate alorrean aholku ematea kontsulten, txostenen eta toki entitateen langileentzako eta hautetsientzako prestakuntza ikastaroen bidez.
3. Ekonomia eta finantza alorreko aholkua ematea toki finantzaketari eta toki entitateei zuzenduriko zergei, aurrekontuen edo kontabilitatearen prozedurei, transferentziei zein dirulaguntzei eta abarri buruz.
4. NUKFko barne organoei eta bertako ordezkarietara batzordeetan, kontseiluetan, lan taldeetan eta abarretan laguntza ematea toki finantzaketarekin zerikusia duten alderdietan.
5. NUKFren ordezkaria izatea batzordeetan, kontseiluetan, lan taldeetan eta abarretan horretarako izendatua izan denean.
6. Gainbegiratze ekonomikoa behar duten eta esleitzen zaizkion NUKFko programen ardura eta kudeaketa bere gain hartzea. Egun, Etengabeko Prestakuntza Planaren eta %1,5eko tasaren kudeaketa.
7. Ekonomia arloarekin zerikusia duten toki entitateetako langileen oposizioetako epaimahaietan parte-hartzea.
8. GESERLOCAL S.L. erakundeari ekonomia eta finantzaketa alorrean aholku ematea eta toki entitateei eskaintzen zaien kontabilitate eta fiskalitate alorreko aholkularitza zerbitzua koordinatzea.
9. Lanposturako eskatzen den lan-mailari eta titulazioari jarraiki esleitu ahal zaizkion beste edozein funtzio betetzea.

Egun ekonomia arloko arduraduna den pertsonarekin batera lanean diharduen denboran, hautatutako pertsonak arduradun horren gainbegiradapean eta harekin koordinatuta egingo du lan.

LAUGARRENA. Lan ordutegia NUKFk ezarritakoa izango da, une oro egokituko da zerbitzuaren beharretara eta erakundeak aldatu ahal izango du.

BOSGARRENA. Lanpostuak dagokion lan-mailaren ordainsaria izango du eta, hala badagokio, aurreikusitako edo ezartzen ahal zaizkion funtzioei jarraiki, osagarriak izango ditu.

SEIGARRENA. Bi hilabeteko probaldia ezartzen da.

ZAZPIGARRENA. Eskatutako baldintzak. Hautapen prozesura aurkezteko honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Hamasei urte baino helduagoa izatea eta Espainiako nazionalitatea izatea edo Europar Batasuneko estatu kideren bateko nazionalitatea edo dagokion tratatuari jarraiki Espainiako nazionalitatea duten pertsonen aitortzen zaion eskubide hau bera aitortzen duen atzerriko estatu bateko nazionalitatea izatea.
- Lehenengo oinarrian adierazitako titulazioak edukitzea.

ZORTZIGARRENA. Hautatze prozesuan parte hartzeko, interesdunek oinarri hauen II. Eranskinen eskabide ereduaren arabera eskaera aurkeztu beharko dute NUKFren egoitzan (Tutera kalea, 20- 3.a, P.K 31003, Iruña) asteleheneetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara edo posta arruntaz. Eskaerak **otsailaren 10era arte** aurkeztu beharko dira. Eskaera NUKFren egoitza elektronikoan ere aurkeztu ahalko da (<https://sedeelectronica.fnmc.es/eu/>).

Eskaerarekin batera, NANaren eta hamaikagarren oinarriari jarraiki baloratu beharko diren merezimenduak egiaztatzeko agirien kopia aurkeztu beharko dira.

Eskaera egoitza elektronikoan aurkezten bada, kontuan hartu behar da erantsitako agiri bakoitzaren gehieneko tamaina 8 Mb-koa dela eta erantsitako agiri guztiak batuta gehieneko tamaina berriz, 32 Mb-koa.

Eskaera posta bulego batean aurkeztuz gero, gutun-azal ireki batean aurkeztuko da, postako langileek data eta zigorria jar diezazkieten eskabideari, ziurtatu aurretik.

BEDERATZIGARRENA. Probak egiteko eguna eta tokia NUKFren web-orrian (www.fnmc.es/eu/) argitaratuko dira eskaerak aurkezteko epea amaitu eta 7 egun igarota.

Proben emaitzak ere NUKFren web-orrian argitaratuko dira (www.fnmc.es/eu/).

HAMARGARRENA. Honakoak izango dira hautaprobak:

1.- Proba teorikoa. Martxoaren bigarren hamabostaldian egingo da.

Erantzun laburreko edo test erako galdera-sorta bat erantzun beharko da, I. eranskineko gaiei buruz. Proba honetan, gehienez ere, 20 puntu lortu ahalko dira. Bazterturik geldituko dira proban gutxienez ere 10 puntu erdiesten ez dituzten izangaiak.

2.- Proba praktikoa. Izaera praktikoa duen ariketa bat edo bi egin beharko dira. Ariketetan, proposaturiko kasu praktikoak ebazteko eskatu ahalko da edo izaera ekonomikoa duen azterketa egitea.

Proba honetan, gehienez ere 30 puntu lortu ahalko dira. Bazterturik geldituko dira proban gutxienez ere 15 puntu erdiesten ez dituzten izangaiak.

3.- Gaitasun profesionali buruzko proba. Lanpostuaren profilari egokitzen zaizkion gaitasun pertsonalen inguruko proba objektibo bat edo batzuk egin beharko dira. Proba honetan, gehienez ere 20 puntu lortu ahalko dira eta ez da baztertzaileria izango.

HAMAIKAGARRENA. Merezimenduak.

Probak egin ondoren, horiek gainditu dituzten izangaiek aurkeztutako merezimenduak baloratuko dira honako baremoari jarraiki eta gehienez ere 30 punturekin:

- **Lan eskarmentua:** gehienez ere 17 puntu emango dira honako zerbitzuak eman izanagatik:
 - Honako oinarri hauetan eskatutako titulazioak eskatu dituzten lanpostuetan egindako zerbitzuak Nafarroako toki entitateetan edo horiek ordezkatzeko dituzten erakundeetan; edota Nafarroako toki entitateetako edo horiek ordezkatzeko dituzten erakundeetan kontu-hartzaileak edo aholkularitza ekonomikorako lanpostuetan egindako zerbitzuak: puntu 1 urte bakoitzeko.
 - Honako oinarri hauetan eskatutako titulazioak eskatu dituzten lanpostuetan egindako zerbitzuak edozein erakundetan edo administrazio publikotan: 0,5 puntu urte bakoitzeko.
- **Lanpostuaren berezko gaiei buruzko prestakuntza espezifikoa.** Gaitegiarekin zerikusia duten gaietan masterrak, espezializazio ikastaroak eta abar egin izanagatik, gehienez ere 4 puntu honela banaturik:
 - 10 eta 30 ordu arteko iraupena: 0,5 puntu prestakuntza ekintza bakoitzeko.
 - 30 ordu baino gehiagoko iraupena: puntu 1 prestakuntza ekintza bakoitzeko.
- **Beste batzuk.** Toki entitateetako langileei zuzendutako Etengabeko Prestakuntza Planean edo hautetsiei zuzendutako prestakuntzan deialdiaren xede den lanpostuaren arloei buruz emaniko irakaskuntza zerbitzuengatik gehienez ere 2 puntu; puntu 1 prestakuntza ekintza bakoitzeko.

- **Euskararen ezagutza:** gehienez ere 7 puntu honako titulazio edo horien baliokideen arabera:

- C1 7 puntu
- B2 3,5 puntu
- B1 1,5 puntu

HAMABIGARRENA. Hautaprobeen emaitzak NUKFren web-orrian (www.fnmc.es/eu/) jarriko dira jendaurrean eta hautatua izan den izangaiari jakinaraziko zaio zuzenean. Kontratua formalizatu aurretik, honako oinarrietako zazpigarren atalean eskatutako baldintzak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dira.

I. ERANSKINA GAITEGIA

1. 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
2. 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituena.
3. 7/2022 Foru Legea, martxoaren 22koa, ezartzen duena nola banatu transferentzia arrunten bidez toki-erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsa.
4. 8/2022 Foru Legea, martxoaren 22koa, Toki Inbertsioen Plana arautzen duena.
5. 270/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, aurrekontuen eta herri gastuaren arloan.
6. 234/2015 Foru Dekretua, irailaren 23koa, aurrekontuen egituraren arloan.
7. 272/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitate Jarraibide Orokorra onesten duena.
8. 273/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitate Bakuneko Jarraibidea onesten duena.
9. 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
10. 12/2006 Foru Legea, azaroaren 21ekoa, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Zergen erregistroa eta Katastroen erregistroa arautzen dituena.
11. 7/1996 Foru Legea, maiatzaren 28koa, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren edo Lizentzia Fiskalaren tarifak eta Jarraibidea onesten dituena.
12. 614/1996 Foru Dekretua, azaroaren 11koa, Jarduera Ekonomikoen edo Lizentzia Fiskalaren gaineko Zerga kudeatzeko arauak ematen dituena.
13. 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra.
14. 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantzaren Jasangarritasunari buruzkoa.
15. Aurrekontuen Egonkortasunak Nafarroako toki entitateetan duen aplikazioa.
16. NUKFk argitaratutako 2022ko aurrekontuei buruzko informazio txostena.
<http://www.fnmc.es/wp-content/uploads/2022/03/INFORME-presu-2022web-CAST.pdf>
<http://www.fnmc.es/wp-content/uploads/2022/03/INFORME-presu-2022web-EUSK-002.pdf>
17. CONCEJO aldizkariaren 379. alea. Toki Ogasunen Funts berriari buruzko txostena. 2022ko ekaina.
<http://www.fnmc.es/wp-content/uploads/2022/06/CONCEJO-379web.pdf>
18. Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana. Next Generation funtsei eta tokiko sektore publikoko entitateek eman beharreko informazioaren kudeaketa sistemari, prozedurari eta formatuari buruzko ikuspegi orokorra.
19. NUKFri buruzko ezagutza orokorra: Estatutuak, gobernu organoak eta jarduerak.

Lege testu guztiak honako oinarri hauek NUKFren web-orrian argitaratzen diren egunean indarrean dagoen araudiaren arabera eskatuko dira.

II. ERANSKINA

ESKABIDE EREDUA

Izen-abizenak:.....jaun/andrea, adinez nagusia,
NAN zenbakia:.....,
jaiotze data:.....,
bizitokia (probintzia/herrialdea):.....,
helbidea (herria):
kalea:.....,zenbakia:, solairua:
posta kodea:.....;
telefonoa: posta elektronikoa:.....

Zure aurrera agertu eta ADIERAZTEN DUT:

NUKFko ekonomia arlorako langileak kontratatzeko deialdian onartua izatea eskatzen dudala,
deialdiko oinarriak onartzen ditudala eta men egiten diedala eta honako agiriak aurkezten
ditudala:

- Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
- Lehiaketaldian baloratu beharreko merezimenduen fotokopia.

Eta eskatutako baldintza guztiak eskabideak aurkezteko adierazitako epearen barruan betetzen
ditudala adierazten dut.

Horrenbestez,

ESKATZEN DUT:

Eskabidea tenorez eta moduz aurkeztutzat harturik, NUKFko ekonomia arlorako langileak
hautatzeko deialdian onartua izatea.

(Data eta eskatzailearen sinadura)